



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

IVAP

1. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko 2
2. 2021-2022ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia 4
3. «Jesús María Leizaola» 2021eko saria..... 6
4. Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa) 8
5. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak 9
6. EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa (2021-2022) egiteko matrikula-bekak... 10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVI. (46) Ikastaroa (2020-2021)» egiten duten ikasleei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa. BOPV 106, 2021eko ekainaren 1

Esleipena: EBAZPENA, 2021eko uztailaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLVI. (46) Hirigintza ikastaroan aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egitekoa den diruz lagundutako praktikaldia» ikasleei esleitzen baitzaie. BOPV 160, 2021eko abuztuaren 12

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2020-2021 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintza-arloan 48 hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Guztira, 22.000 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da (Gizarte Segurantzako gastuak barne). Laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

Praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko ikastaroa (2020-2021) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han hiru hilabeteko praktikak eginez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hala, harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (2021ko urritik abendura arte). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari



buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Emaitzak onak izan dira. Izan ere, diruz lagundutako praktikak 9 ikaslek egingo zituztela aurreikusita bazegoen ere, azkenean, 6 ikaslek egin dituzte.

Gauzatutako aurrekontua:

Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa	%	Laguntzak
22.000	14.492,51€	66	6

Lurralde-banaketa:

Lurralde Historikoa	Laguntzak
Alava	1
Bizkaia	3
Gipuzkoa	2
Guztira	6

Ikastaroko ikasleek kontaktu ugari egin ditzakete, eta, orobat, erakundeak eta/edo enpresak ezagutzeko aukera dute. Horri esker, hirigintzak funtzio publiko gisa duen izaeraz jabetzen dira gertu-gertutik.

Ikasleak ikastaroa amaitu eta oso gutxira hasten dira lanean hirigintzaren arloan. Izan ere, erakundeek eta enpresek oso balorazio positiboa egiten dute ikastaroaz eta haren izaera praktikoaz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru-laguntza praktiketarako	9	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2021-2022ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita merezimendu-lehiaketa baterako Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko 2021-2022ko aldirako bi dirulaguntza emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia

Esleipena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerlanak egitea eta ikerlan horiek adiera ematea, administrazioak eta gizarteak bere ekarpenak jasotzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko deialdian, aurreikusitako bi dirulaguntzak esleitu ziren:

- Lehenengoa, EAEn segregazio sozioresidentzialari, desberdintasun sozialari eta etxebizitza-politikari buruzko ikerketa-lan bat egiteko.
- Bigarrena, espetxe-arloko bitartekotzari buruzko lan bat egiteko.

Diru-laguntzen deialdi honetan, helburuen balorazioa bi faseri dagokienez egin behar da:

- Laguntzak esleitzeko fasea, ikerketa-taldeek aurkeztutako proiektuetan oinarrituta, eta diru-laguntzaren lehen ordainketa entregatzea. Aurreikusitako helburua bete da: bi diru-laguntzak ematea eta lehen ordainketa egitea (5.000 euro).
- Aurkeztutako lanak baloratzeko eta diru-laguntzen bigarren ordainketa esleitzeko fasea. 2022ko irailera arte ez ditugu jasoko amaitutako lanak; beraz, oraindik ezin dira emaitzak ebaluatu.

Programak Administrazio Publikoaren arloan ikerketa sustatzeko eginkizuna betetzen du, eta laguntza garrantzitsua da ikerketa-taldeentzat.

Gainera, 8,5etik gorako puntuazioa lortu duten monografiak argitaratzeak lanak hedatzen laguntzen du.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ikerketa-lanak aurkezteko epea 2022ko irailaren 24an amaituko da.

2020-2021 deialdiari dagozkion adierazleen emaitza honako hau da:

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Argitaratutako ikerlanen ehunekoa, esleitutako dirulaguntzei dagokienez (ikerketa sustatzeko dirulaguntzen deialdian)	100%	50%
Deialdian onartutako eskaerak, dei eginiko laguntza bakoitzari dagokionez.	3	1
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan diru-laguntzei uko eginiko ehunekoa.	0%	0%
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan liburutegian gordetako ikerlanen ehunekoa.	-	50%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Jesús María Leizaola» 2021eko saria

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 28koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Jesús María Leizaola» 2021eko saria, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako. Ikerlan horien xedea izan behar da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia

Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2021eko «Jesús María Leizaola» sariaren helburua da euskal autonomiari, euskal autogobernuari, EAEko lurralde-antolamenduari eta/edo politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoari buruz egindako ikerlanak sustatzea eta zabaltzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Sariak:

- Ikerketa sustatzen du hainbat azterketa-ikuspegietatik: euskal autonomia, euskal autogobernuari, EAEko lurralde-antolamendua eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.
- Arlo horietan egindako ikerlanen zabalkundea bultzatzen du.

Leizaola 2021 Sariaren edizioa bereziki arrakastatsua izan da. Lau monografia aurkeztu dira, honako emaitza eta azterketa-eremu hauekin:

- Lan horietako batek saria jaso du, eta justiziar buruzko azterlan sozio-juridikoa da.
- Beste lan batek akzesita jaso du, eta udal-autonomiari eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeari buruzkoa da.
- Gainera, epaimahaiak deialdira aurkeztutako beste bi obren kalitatea eta interesa baloratu ditu, eta argitaratzea proposatu du. Horietako batek euskal administrazio publikoek garatutako jarduera ekonomikoa eta finantzarioa aztertzen du; besteak, berriz, EAEk azken berrogei urteetan izan dituen nazioarteko harremanak.

Lan guztiak argitaratuko dira, eta edizio-fase desberdinetan daude.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	3	4
Leizaola saria ematea	1	1
Leizaola saria akzesita ematea	1	1
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	-	0
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	2
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	100%	100%



1.- Diru-laguntza Programaren izenburua

Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)

2.- Araua

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005006237>

Ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105164e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Udal-administrazioak diruz laguntzea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonda eta partzialki edo guztiz liberatuta egonda, euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratu arte euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatzuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2021eko urtarrila-ekaina epealdia.

- Ordezkatutako ikasle kopurua: 3
- Erakundeak: 2
- Liberazio mota: osoa eta zatikakoa
- Ordezkapenen kostua: 9.103,99 euro.

2021eko uztaila-abendua epealdia.

- Ordezkatutako ikasle kopurua: 0
- Erakundeak: 0
- Liberazio mota:
- Ordezkapenen kostua: 0 euro

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ordezkapenatarako diru-laguntza eskatu duten erakundeen kopurua	10	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazioko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2103050e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Prestakuntza-planen kopurua: 28

Parte-hartzaileen kopurua: 79.800

Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua: 79

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAeko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

Pandemia hasi zenetik, prestakuntza-planari dagokienez aurkeztutako eskaerek behera egin dute. Hala ere, prestakuntza-planetan parte hartu duten parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, goranzko joera dagoela hautematen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-planen kopurua	45	28
Parte-hartzaileen kopurua	70.000	79.800
Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	79



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa (2021-2022) egiteko matrikula-bekak

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 2koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez bost matrikularen gastuak ordaintzeko bost beka iragartzen baitira «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII (47) Ikastaroa (2021-2022)» egiteko. Aipatutako ikastaroa IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatu du.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia:

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 2koa. (BOPV, 115, 2021eko ekainaren 14koa)

Esleipena:

EBAZPENA, 2021eko irailaren 13koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez, 2021-2022rako antolatu den Hirigintzako XLVII. (47) ikastaroa egiteko matrikula-beka bat esleitzen baita. Ikastaroa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE-Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU/LHIEE) antolatzen du. BOPV, 196, 2021ko irailaren 30koa

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen ditu Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak. Urtero bezala, 2021-2022ko edizioan ere beka-deialdia egin da Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko bost laguni. Matrikula-beka bakoitza 2.780,00 eurokoa da (ikastaro osoa ordaintzeko besteko kopurua).

Xedea da baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituzten graduatuek ikastaroan parte hartuko dutela bermatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatzen laguntzea, hori da helburua. Eta, esan bezala, parte hartzeko aukera eman nahi zaie baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituztenei.

Gauzatutako aurrekontua:

Proposatutako zenbatekoa	Aurrekontua Gauzatutakoa	%	Laguntzen Zkia
15.985 €	3.197€	% 20	1



Lurralde-banaketa:

Lurralde Historikoa	Laguntzen Zkia
Alava	
Bizkaia	1
Gipuzkoa	
Guztira	1

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Matrikula beka kopurua	5 beka	Beka 1